



## ABONO EGOKITUA

### 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proposamena nekazari bakoitzaren lurretara egokituko den abono bat sortzea da. Horretarako, nekazari bakoitzaren lurra aztertu eta haren lurrak dituen beharrak definituko ditugu.

Ikerketa hau aurrera eramateko, laborategi bat irekiko dugu, bertan beharrezko ikerketak egiteko eta gure produktua sortzeko.

Gure bezero nagusiak inguruko nekazariak izango dira. Horregatik, hasiera baten haiei aurkeztuko diegu gure produktua, eta ondoren, dena ondo badoa nazio mailan zabaltzen saiatuko gara.

Nekazaritza intentsiboa landuko dugu, gure oinarria ongarririk sortzea delako eta nekazaritza mota honek, ongarririk eta ekoizpena gehitzeko bestelako gai kimikoak erabiltzen dituelako.

Uste dugu, nekazariak gure produktua erosiko dutela, kalitate onekoa, nekazari bakoitzaren beharretara egokitua, eta lur bakoitzerako onuragarria izango delako, hau da, ez du inolako kalterik sortuko. Gainera, abonoa sortzeko orduan, produktu ahalik eta ekologikoenak erabiliko ditugu, kutsadurarik sortu gabe.

Bestalde, bezeroengana hurbiltzeko, nahiago badute, produktua beraien etxean jasotzeko aukera izango dute.

Horretaz gain, produktua ongi mantenduko da eta beraz, behin erosi ondoren, denbora luzean zehar erabilgarria izango da.

Urte batzuk igarota, enpresak etekin handiak dituela ikusten badugu, animalientzat pentsu bereziak sortzea pentsatu dugu, animali bakoitzak, behiak adibidez, esne gehiago eman dezaten. Horretarako, jada sortuta dugun laborategia erabiliko dugu, baita produktu ekologikoak ere erabiliko genituzke.